

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA 2022

NARRATIVA EUSKERA 14-16 AÑOS

TERCER PREMIO

Pantaila baten atzean

Inés Cuevas Aparicio

Ni Edurne naiz, ile luze eta marroixka duen hamahiru urteko neska gaztea. Arropa txukunak janztea gogoko dut. Nahiko panpoxa naizela uste dut eta nire buruarengan konfidantza handia dut. Hortaz, batzuetan harro samar joka dezaket. Une honetan, hurrengo udako oporrak iristeko irrikaz nago. Dena den, iazkoak ez ditut inoiz ahaztuko, batez ere, irakaspen garrantzitsua lortu nuelako: “ezin zara pantaila batez fidatu”.

Oporretako lehen astea zen eta aireporturako bidean gindoazen familia osoa: gurasoak, ni baino lau urte gazteagoa den ahizpa Maria eta laurok. Mendiz inguratutako herri batean bizi garenez, hiri dotore eta kultural bat bisitatzeko eta disfrutatzekeo gogo geneukan. Hori dela eta, Parisera joateko erabakia hartu genuen. Aldiz, gure etxetik aireporturik hurbilenera bi orduko tarte dagoenez, bide batez, Bilbon bi eguneko geldialdia egiteko asmoa geneukan. Bidaia entretenigarriagoa egiteko, sare sozialetan sartu nintzen. Argazki batean nire bi lagun agertzen ziren hondartzan dibertitzen. Bitartean ni beroz itotzen ari nintzen traste erraldoiez beteriko bost plazako auto kaskar eta motel batean.

Bat-batean, autoa gelditu eta jaitsi behar izan ginen, nire harridurarako ez gure helmugan, herri triste batean baizik, gurea baino txikiagoa zena. Autoak, bat-batean, ibiltzeari utzi zion eta. Handik gutxira, adineko gizon bat hurbildu eta laguntzeko asmoz, hurrengoa esan zigun:

—Aldameneko herrian bizi den mekanikari bat igandero etortzen da bere ama bisitatzera.

—Ederki ba! Dei diezaiozun! —erantzun nuen urduri.

—Ezta pentsatu ere! Herri honetan ez dugu gailu hipnotizatzaile horietakorik erabiltzen

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

eta, gainera, ez dago hori egiteko seinalerik —bota zuen erdi haserre.

Bilbora iritsi ezinean geundenez, agureak bere etxean geratzea eskaini zigun, herri txiki horretan ez baitzegoen ostaturik edo lo egiteko geratzeko beste lekurik.

Berriro sartu nintzen gazteen sare sozialen munduan. Bertan komunikaturik eta eguneraturik sentitzen nintzen eta, gainera, zurrumurru guztiez jabetzea gustatzen zitzaidan. Hauek behar nuen guztia eskura izatea ahalbidetzen zidaten. Hori gutxi balitz, harro agertzeko aukera paregabea ematen zidaten.

Momentu horretan, zerbait argitaratzeko gogoia piztu zitzaidan, besteei inbidia sentiarazteko berriren bat. Hala eta guztiz ere, nire egoera kontuan harturik, harrotu baino, nire burua lotsatuko nuen. Egoera “apaintzea” zen nuen aukera bakarra. Azken finean, nork ez zuen horrelakorik egiten?

Ingurune ahalik eta txukunena bilatu nuen herriaren kanpoalde menditsuan. Ez zen erraza izan, baina, aldapa maldatsua igota, belardi loredun bat aurkitu nuen. Bikaina zen! Beraz, kokapen eta angelurik onena aurkitu ondoren, “selfie”-a igotzen saiatu nintzen. Zoritxarrez, Wifi-a ez zen haraino iristen. Zapuzturik, mugikorra itzali eta aldapa hartatik jaisterakoan, lokatz putzu batean erori nintzen. Nazkatuta handik ihes egin nuen, inork ez ikusteko erregutuz.

Biharamunean, alarmak esnatu eta segituan altxatu nintzen, ohea oso deserosoa baitzen eta gainera gose nintzen. Sukaldera heltzean... Zer urritasun zen hori? Gosaltzeko ogia eta esnea baino ez zegoen!

Han geratu ginen ahizpa eta biok, norbera bere mugikorrarekin, agurea azaldu arte. Orduan, bortizki garrasi egin zigun eta kalera ateratzeko agindu zigun. Ahizpak mugikorra logelan utzi zuen eta nik, aldiz, nirea eskuetan nuelarik kalera atera nintzen.

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

Bat-batean, mugikorra itzali zen, nire amesgaiztorik okerrena: bateria agortua zegoen! Hamar minutu baino ez genituen igaro kalean. Hala ere, niri amaigabea iruditu zitzaidan tarte hori.

—Begira, oiloak! —oihukatu zuen Mariak txitategi bat seinalatuz.

Hara hurbildu ginen jakin-minez. Barre batzuk bota genituen atea irekia zegoela konturatzean eta animaliek herri osoan zehar jarraitu gintuztenean. Hau izan zen pantailarik gabe ongi sentitu nintzen lehen aldia aspaldiko partez.

Gaua iritsi eta oheratu ginen. Dena den, ezin nuen lorik hartu, euria ari zuen eta, gainera, itogin bat zegoen nire ohearen gainean. Etxe horretan esna nengoen bakarra nintzen eta nire bizitza sozialaren berri izateko beharra nuen, notiziarik galdu ez nuela ziurtatzeko. Beraz, ahizpa Mariaren mugikorra erabiltzea erabaki nuen. Komunean giltzapetu nintzen gailu baliotsua nirekin nuela.

Konexio txarra bazegoen ere, nire kontua bilatu nuen sareetan. Zenbait jarraitzaile eta lagunak mezuak nituen, beti bezala. Aldiz, jarraitzaile berri baten mezu batek arreta deitu zidan. “Faltsu hutsa” nintzela eta agerian utziko ninduela zioen. Jarraitzaileak ez nituela merezi eta bakarrik geratuko nintzela mehatxu egin zidan. Bat-batean ahizparen mugikorrean haren jarraitzaile baten mezu bat agertu zen pantailan. Ezin izan nion jakingurari eutsi, horrela zioen: “Kaixo, Isabel naiz, Edurneren lagun bat. Oporretan zaudete? Esango al diozu zure ahizpari nirekin kontaktuan jartzeko edo behintzat argazkiak igotzeko?”. Baina nik ez nuen Isabel deituriko inor ezagutzen. Lehen aldiz, deseroso sentitu nintzen sareetan. Oso arraroa iruditu zitzaidan. Bere kontuan klik egin nuen. Bertan ez zegoen argazkirik. Ordu bat edo eman nuen hari buruz miatzen hainbat sare eta aplikaziotan, izan ere, bere profilari buruz zerbait susmagarria zegoen eta hori argitu nahi nuen.

Azkenean, nire kontura iritsitako mezu gorrotogarria eta nire ahizpari ailegatutakoa

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

pertsona berberak, profil ezberdinak erabiliz, bidaliak zirela jakin izan nuen. Elena zen benetan, nire herriko neska bat, nire adinekoa. Orduan, haren profil nagusian sartzean, ezusteko bat hartu nuen. Bertan zeuden argazkiak ez ziren bereak, kritikatzten zituen beste erabiltzaile batzuenak baizik. Edonola ere, hori ez zen okerrera, hain zuzen ere, plataforman kontu gehiago zituen. Hauetan, haren profil nagusian kritikatzten zituen biktimen identitatea lapurturik, horiek izatearen itxura egiten zuen. Seguruenik, nire informazio eta argazkiak horretarako nahi izango zituela pentsatu nuen. Baina zergatik hainbeste gorroto? Egia da zenbaitetan nire irudia sarean itxuraldatu izan nuela. Edozein kasutan ere, horren atzean ezkutuko arrazoï handiagoren bat egon beharko zela susmatzen nuen. Hori ezagutzeko modu bakarra Elenarekin aurrez-aurre hitz egitea izango zen.

Ordura arte ez nintzen konturatu sare sozialen toxikotasunaz eta plataforma horiek nire bizitzan izaten ari ziren eragin negatiboaz, ez bainintzen unean bizitzen ari. Hori aldatzeko, mugikorra tarte batez alde batera uztea eta, aldi berean, nire harrokeria kontrolatzen hastea erabaki nuen.

Igande goizean biziago eta alaiago sentitu nintzen, ondo lo egin ez banuen ere. Gosaldu ostean, mekanikaria etorri zen eta autoa konpondu zigun. Joan aurretik, gure anfitrioi atseginak herriaren banderaxo bat oparitu zigun gure bidaiaren lehen oroitzapen gisa. Eskerrak eman eta gure Bilborako bideari ekin genion.

Zoritxarrez, iritsi ginenerako hegazkina joana zen eta ezin izan ginen Parisera joan. Etxera itzuli behar izan ginen pixka bat desilusionaturik. Aldiz, Elenarekin harremanetan jartzeko irrikaz nengoen.

Egun horretan bertan haren etxeko atarian agertu nintzen berarekin hitz egiteko asmoz. Elenaren amak ongi-etorria egin zidan eta alabaren bila joan zen. Ile eta begi marroiak zituen eta arropa eroso zantzitako neska bat atera zen nahasturik. Txunditurik

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA 2022

geratu zen ni ikustean. Tarte bat isilik eman ondoren, lehen pausua eman nuen nik:
—Zergatik saiatzen zara besteen identitateak lapurtzen eta suntsitzen? —galdetu nion.

—Ez esan ez dakizunik. Sareetan ez du inork egia esaten —erantzun zuen haserre.

—Arrazoi duzu, baina zuk beste zerbaitengatik egiten duzu —esan nion seguru.

Neskak hasperen triste bat bota zuen.

—Egia da, inbidiaz beteriko neska bat baino ez naiz. Guztiak bizimodu ezin hobeak daramatzazue eta ni landako neska bat baino ez naiz, etorkizunik ez duena eta inork gogoan izaten ez duena —bota zuen azkenean.

—Bizimodu ezberdina izateak ez du esan nahi hobea edo txarragoa denik. Gainera, norbera bere bizitza eraikitzen joaten da erabaki eta jokaera bakoitzarekin —gogoratu nion.

Berarekin gusturago hasi nintzen sentitzen eta niri gertatutakoa aitortu nion.

—Opor hauetan jabetu naiz gure kanpoko zaintzeko joera dugula, besteen onarpenak bilatzeko helburuarekin. Baina benetan barrukoa da garrantzitsuena eta zuk zeure burua maitatzea. Nik egin badezaket, ziur naiz zuk ere egin dezakezula. Oso neska argia eta saiatua zara, nahi duzuna lor dezakezu.

Handik aurrera Elena eta biok lagun minak egin eta, batak bestea lagunduz, pertsona hobeak bihurtu ginen. Baina tira, inoiz ez dago jakiterik zer ezkututzen den pantaila baten atzean.